

Azaroaren 27tik abenduaren 3ra asterako Nafar Gobernuaren agenda kulturala

ZINEMA

39 eskaloi

Nafarroako Filmoteka

Asteartea / 20.00etan

John Buchan-en nobela batean oinarrituta dago pelikula hau. 1999.urtean Britainiako Zinema Institutuak bertako laugarren pelikula onena zela ondorioztatu zuen.

2004.urtean, gainera, Total Film aldizkiak historiako pelikula onenen zerrendan 21. tokian kokatu zuen.

"39 eskaloi Hitchcockek" gerora jorratu zuen gai baten lehen filma izan zen: gizon errudun batek justiziarengandik ihes egin behar duen gaiari buruzkoa, hain justu. Hitchcocken kameo klasikoa pelikularen hasieran agertzen da: zaborra zakarrontzira botatzen agertzen da Richard (Robert Donat) eta Annabella (Lucie Mannheim) antzokitik ateratzen diren uanean.

Ikuspuntu Jaialdiari begira

Nafarroako Filmoteka

Osteguna / 20.00etan

Divine Horsemen: The Living Gods of Haiti (Alemania, 1985)

Maya Deren zinemagile esperimentalak 1947 eta 1954 urte bitartean egindako dokumentala da honako hau.

Trypps #6 Malobi (EEBB, 2009)

Surinameko Maroon de Malobi eskualdean (Amerikako Hegoaldea) eta hartualdi bakar baten bidez grabatu zen pelikula hau. Jean Rouchen obra klasiko baten bertsio garaikide eta harrigarria eskaintzen du.

KONTZERTUAK

Nafarroaren Eguneko kontzertua

Baluarte. Areto Nagusia

Igandea / 19.00etan

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, P.Urbina, A.Erburu, M.Ayestarán eta S.Esparza.

Nafarroaren Eguna dela eta, Nafarroako Orkestra Sinfonikoak ezohiko kontzertua eskainiko du Baluartean emanaldian lau musikari nafar gaztek parte hartuko dutela:

Pablo Urbina, orkestra zuzenduko duena, eta Ander Erburu (flauta) eta María Ayestarán eta Sofía Esparza sopranoak. Kontzertu berezi honetan Remacha, Guridi, Roig, Ibert, Mozart, Bizet eta Brahms-en obrak entzun ahalko dira.

ERAKUSKETAK

Materia betiko

Nafarroako Museoa (4.1 aretoa)

2017/11/18 - 2018/02/18

Nafarroako Museoak mikroerakusketa berri bat jarri du ikusgai: “Materia betiko”, Alfredo Díaz de Cerio-rena. Margolari, eskultore eta poeta nafarraren lan-multzo txikia erakusten du, urtarrilean hamar urte beteko baitira hil zenetik.

Mikroerakusketak egilearen lan plastikora zein poetikora hurbildu nahi du ikuslea, haren azken lanetako batzuen eskutik.

Ni, denetan okerrena

Oteiza Museoa, Nafarroako Museoa, Huarte Zentroa

2017/10/27 - 2018/02/04

24 artistaren lana erakutsiko dira, eta Maite Garbayo Maeztu izango da komisarioa. Nafarroako Museoaren, Jorge Oteiza Fundazio Museoaren eta Huarte Arte Garaikideko Zentroaren elkarlanaz egindako proiektua da.

Artearen Historian doktore Maite Garbayo Maeztu ikerlari eta idazleak gauzatutako komisariotza- eta arte-proiektu hau teoria kritiko feministatik abiatzen da, emakumeak bazterrean utzi dituen ezagutza produzitzeko eta transmititzeko modu hegemonikoak zalantzan jartzeko.

Navarrorum

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia

2017/09/21 - 2017/12/31

Bisita gidatuak: Larunbatetan, igandeetan: 11.00etan (euskaraz) 12.00etan (gaztelaniaz) NAVARRORUM ez da euskararen historiari buruzko erakusketa bat. Baina, zernahi gisaz, aurre egiten dio erronka jakin bati: idazki batzuen bidez euskararen aztarna dokumentala agertzea, kontuan izanda ia mila eta bostehun urtean ahozko mintzoa izan zela. Ahozko hizkuntza, idazten ez zena. Erakusketarako, hiru dozena dokumentu hautatu ditugu. Euskarazko agiriez gain, euskarari buruzko agiriak ere badaude tartean. Den-denek badute bereizgarri bat, nafartasuna: Nafarroari buruzkoak, Nafarroan idatziak edo nafarrek eginak dira. Gehienak gure artxibo, museo eta liburutegietatik hartu ditugu, baina badaude Afrikako, Ameriketako eta Europako beste dokumentu zentroetakoak ere.

Gloria Fuertes poetaren mendeurrenari buruzko erakusketa

Nafarroako Liburutegia. Erakusketa-aretoa

2017/11/07 - 2018/01/05

Sarrera: librea

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etik 20:30era.

Larunbatetan, 11:00etatik 13:30era.

Erakunde laguntzailea: Madrilgo Fernán Gómez Kultur Zentroa

Mendeurrenaren erakusketa handia ikusgai egongo da azaroaren 7tik 2018ko urtarrilaren 5era. Gloria Fuertes Fundazioak eta Fernando Fernán Gómez Zentroak

antolatu zuten duela ehun urte jaio zen poeta madrildarraren omenez. Madrilen eta Bilbon ikusgai egon eta gero, Iruñean (Nafarroako Liburutegian) ere bisitatu ahalko da. Izan ere, hemen amaituko da Gloria Fuertes-en inguruko ospakizunetako betetako urtea.

HAURRENTZAKO AISIA

Gloria Guztiontzat: antzerki-ikuskizuna

Nafarroako Liburutegia. Haurrentzako aretoa

Astelehena / 18.00etan.

Ekitaldia: Boz gorako irakurraldia; emankizunak; antzerki-ikuskizuna

Sarrera: librea aretoa bete arte. Dohainik.

Informazio gehiago:

https://www.navarra.es/home_es/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2017/11/07/exposicion+Gloria+Fuertes.htm

TAILERRAK

Esto nunca fue Argentina

Huarte Zentroa

2017/12/01 - 2018/01/07

Habitación. Erakusketa programa.

Laida Azkona eta Txalo Toloza.

BISITAK ETA IBILALDIAK

Bisita gidatuak Karlismoaren Mesuran

Lizarra

Larunbata / 16.30etan, 17.30etan

Doako bisita gidatuak Karlismoaren Museoko erakusketa iraunkorra ezagutzeko.

Sarrera librea aretoa bete arte (gehienez 25 pertsona)

Jarduera gaztelaniaz egingen da.

Erakusketara bisitak Ni, denetan okerre

Nafarroako Museos

Igandea / 12.30etan

Erakusketara bisitak, Mireya Martinek, Sofía Alberok eta Eva de la Vegak lagunduta.

Ni, denetan okerreana hiru egoitzatan dago banatuta: Nafarroako Museoa, Uharteko Arte Garaikideko Zentroa eta Jorge Oteiza Fundazio Museoa. 24 artista (22 artista + holtz tolesgarri anonimo koloniala + Francis Bartolozzi + Oteizaren obra), nafarrak gehienak, aipatu gai hauek hurbilduko dira euren interes artistiko eta ikerketatik abiatuta.

Bisita gidatua Iruñeko katedralaren klaustroa konpontzeko lanetara

Iruñeko katedrala

Igandea / 10:00etan, 11:00etan, 12:00etan

Ekainean bukatu ziren Iruñeko katedralako klaustroaren iparraldeko aldea zaharberritzeko lanak; 2016ko abuztuan hasi ziren, eta hormartearen barnean eta lorategiko fatxadan egin dira. Horregatik, Nafarroako Gobernuak Ondarearen Zerbitzuak doako bisita gidatuen programa bat antolatu du, lan horiek bertatik bertara ikusteko aukera ematen duena.